

XEDAPEN OROKORRAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2907

353/2013 DEKRETUA, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzeko oinarrizko prozedurari dagokionez, pertsona profesionalak, euren jarduna betez, egiaztatzen badute jarraipena eskatzen duen esku-hartzeko baten beharra dagoela, diagnostiko bat egitea eskatzen duen jarduketa-prozedura bat hasiko dute, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren 12/2008 Legearen 19.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera. Eta, gainera, baldin eta diagnostiko horrek hala eskatuko balu, arreta pertsonalizatuko plan baten lanketa hasiko dute, plan horretako neurriak abian jartzeko –prestazioak eta zerbitzuak barne–, eta jarraipena eta ebaluazioa ere egingo dute.

Esku-hartzeko oinarrizko prozeduran erabiliko diren tresna tekniko komunak arautzerakoan, 12/2008 Legearen 20. artikulua ezartzen du euskal administrazio publikoek balioespenerako eta diagnostikorako tresna komunak aplikatuko dituztela gizarte-zerbitzuen esku-hartzeko irizpideen homogeneotasuna bermatzeko. Helburu horrekin, oinarrizko gizarte-zerbitzu guztiek fitxa sozialaren eredia beteko dute eta arreta pertsonalizatuko planaren eredia aplikatuko dute; azken hau izango da bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuek aplikatu beharrekoa. Era berean, eransten da eredu horien diseinuak erabilera- eta ustiapen-ezaugarri batzuei jarraitu beharko dietela, izapidetzean eta kudeaketan arintasun handiagoa bermatzeko.

Aipatu artikulua 3. paragrafoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez arautuko ditu tresna komun hauek, gainontzeko euskal administrazio publikoekin koordinatzeko dituen eskumenak erabiliz, izan foru- zein udal-esparruan.

Azaldutakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako pertsona profesionalak behatu beharreko jarduketa sorta ordenatu batek osatzen du esku-hartzeko oinarrizko prozedura; horretarako, tresna multzo bat izango dute, uniformetu beharrekoa, Euskal Sistemaren Gizarte Zerbitzuen esku-hartzeko irizpideen homogeneotasun handiena bermatzeko.

Oro har, hauek dira esku hartzeko faseak, esku-hartzeko oinarrizko prozeduran:

– Pertsona erabiltzaileei harrera egitea oinarrizko gizarte-zerbitzuek edo udal-zerbitzuek, edo, hala behar bada, premiazko arreta eman beharrak eraginda, bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuek.

– Beharizanen gizarte-balioespena, oinarrizko gizarte-zerbitzuek edo udal-zerbitzuek egina, pertsona erabiltzaileak gizarte-zerbitzuetara jotzeko duen arrazoia biltzen duen Fitxa Sozial batek abiatuz.

– Egoeraren diagnostikoa, aipatutako pertsona profesionalak egina; bertan, gizarte-beharrizanak zehazteko analisia, horren arrazoiak eta iragarpena jasoko dira, esku-hartzeko tresnarik egokiena zein diren zehaztu ahal izateko gisan. Oinarrizkoa Gizarte Zerbitzuek hasierako diagnostiko bat egingo dute, baina baldin eta intentsitate handiagoko esku-hartzea eskatzen dela irizten badiote edo bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetara desbideratzea erabakitzen badute, diagnostiko sakona egingo dute.

– Diagnostikoak hala aholkatzen badu, arreta pertsonalizatuko plana, antzemandako beharri-erantzuteko egoki iritzitako zerbitzuen eta prestazioen zerrenda.

– Arreta pertsonalizatuko planean barne hartutako neurri guztien jarraipena.

– Esku-hartzearen eraginaren eta inpaktuaren emaitzaren ebaluazioa.

Gizarte Zerbitzuen Legeak ez du balioespenerako eta diagnostikorako tresna tekniko komun zerrenda itxi bat eskaintzen, izan ere, ad hoc landutako balioespenerako eta diagnostikorako tresna erabiliko dira, gizarte-zerbitzuen pertsona erabiltzaileen gizarte-beharrizan motak aintzat harturik.

Honela bada, eta ezinezko denez arau bakarraren bidez eta batera arautzea balioespenerako eta diagnostikorako tresna tekniko komun guztiak, erabaki da dekretu honen bidez jarduketaprozeduraren hasierako faseetako beharrezko tresna orokorrak garatzea, hau da, Fitxa Sozialaren eredia eta gizarte-diagnostikorako tresna.

Halaber, arauaren esparrutik kanpo utzi da arreta pertsonalizaturako planaren eredia, izan ere, diagnostikoaren emaitzaren arabera egiten baita hori. Diagnostikoa egitea aipatu plana ezarri aurreko ezinbesteko pausua bada ere, egindako diagnostikoak ez du nahitaez ekarriko ondorengo arreta-plan bat ezartzea.

Tresna tekniko orokor hauez gain, zerbitzu espezializatuek diagnostikorako bestelako tresna espezifikoak eta beregainak ere izango dituzte arazo jakin bat balioesterakoan. Tresna komun horietako batzuk badaude jada –Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku egoeren larritasuna balioesteko tresna (Balora) edo mendetasuna balioesteko baremoak (BVD eta EVE)–, beste batzuk aldiz, garatu beharrekoak dira, gizarte-bazterketa edo pertsona helduen babes-eza balioesteko tresnak, esaterako. Tresna komun guztiak onartzeak eta arautzeak 12/2008 Legearen 20. artikulua mandatu betetzea ekarriko luke.

Fitxa Sozialaren ereduari dagokionez, dekretu honen bidez onartzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialaren eduki formala. Fitxa, gizarte-zerbitzuen pertsona erabiltzaileen oinarritzko datuak bildu eta erregistratzeko eta gizarte-zerbitzuetara jotzeko izan dituen arrazoiak biltzeko balio duen euskarri dokumental gisa definitzen du 2. artikulua, esku-hartzeko oinarritzko prozeduran inkardinatzen du, eta haren indarraldia ezartzen. I. eranskina da Fitxa Sozialaren eredia: barne hartzen du pertsona erabiltzailearen oinarritzko datu sozio-biografikoei buruzko adierazle sorta bat, gizarte-zerbitzuek pertsona erabiltzaileei arreta emateko arrazoi posibleak eta adituen gizarte-gaitasunen lehenengo balioespen bat.

Diagnostikorako tresna komunari dagokionez, «gizarte-diagnostikoa» erabiltzen da zehazkiago, egiten den diagnostikoaren alderdi soziala aintzat hartuta. Gizarte-diagnostikoa izango da gizarte-zerbitzuetara jotzen duten pertsonen buruzko tresna orokorra, eta, adierazle zehatzen sistema batean oinarrituz, ahalbidetuko du irizpide komun bidez pertsona erabiltzailearen egoera balioestea eta esku-hartzeko prozedura jarraipena emateko modua zehaztea. 3. artikulua gizarte-diagnostikoaren definizio bat eta bere eskakizuna ematen du, eta bi diagnostiko-motak ezberdintzen ditu –hasierakoa eta sakona–, zeinak Oinarritzkoa Gizarte Zerbitzuek egingo baitituzte. Diagnostiko horren emaitzatik etorriko da, hala behar bada, bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuei balioespen eta diagnostiko espezializatu bat eskatzeko beharra.

II. eranskinean adierazle zerrenda bat jasotzen da –alderdika ordenatuak eta bizi-espazioka multzokatuak–, zeinek ahalbidetzen baitu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren artatu daitekeen edozein kasuren ezaugarriak biltzea, eta pertsona erabiltzearen gizarte-egoera zein den ondorioz-

tatzea. Hautatutako adierazle multzo batek –zerikusia dutenak babes-sistemarekin, bizikidetzaren pertsonalarekin, familia-bizikidetzarekin, gizarte-bizikidetzarekin eta iraupenerako baliabideekin– ahalbidetzen du lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek hasierako diagnostikoa egitea, eta zerrenda horrek bere osotasunean, aldiz, balioko du diagnostiko sakona egiteko.

Azkenik, 4. artikulua jasotzen du Fitxa Soziala egiteko informatikako aplikagarri komuna eta gizarte-diagnostikoa, epe eta baldintza jakinetan, euskal administrazio publikoen esku uzteko Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa.

Azaldutako guztiagatik, dekretu honen bidez arautzen dira, batetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala, beronen eredia onartuz, eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoaren tresna, diagnostiko hori egitea ahalbidetzen duten adierazleak onartuz.

Ondorioz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren adostasunarekin eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Dekretu honen xedea da onartzea eta arautzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala eta gizarte-diagnostikorako tresna, Zerbitzu Sozialen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 20. artikuluan xedatutakoak.

2.– Fitxa Soziala eta gizarte-diagnostikoa esku-hartzeko oinarrizko prozeduraren barnean landuko dira, eta hauek dira eginkizunak: gizarte-zerbitzuen pertsona erabiltzaileari harrera egitea, bere egoera balioestea, gizarte-diagnostikoa, arreta pertsonalizaturako plana, esku-hartzearen jarraipena eta ebaluazioa.

3.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala eta gizarte-diagnostikoa euskal administrazio publikoen tresna tekniko komunak dira, eta gizarte-zerbitzuen esku-hartzeko irizpideen homogeneotasuna bermatzea dute helburu.

2. artikulua.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala.

1.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala agiri bat da, paperezko euskarrian edo elektronikoa, izaera indibidualekoa, zeinen bidez Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek gizarte-zerbitzuen pertsona erabiltzaileen oinarrizko datuak bildu eta erregistratzen baitituzte.

2.– Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek I. eranskinean ezarritako ereduaren arabera beteko dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala, eta Eusko Jaurlaritzari helaraziko diote ustiapenerako eta estatistika-tratamendurako.

3.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialak bilduko du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek pertsona erabiltzaileari harrera egiteko arrazoia, sistemaren jarduketako esparru orokorrak aintzat hartuz:

– Gizarte-zerbitzuetako sistemaren zerbitzuak eta prestazioei buruzko informazioa biltzeko.

– Gizarte-babeserako beste sistema batzuen zerbitzuei eta prestazioei buruzko informazioa biltzeko.

- Mendetasunari erantzutearekin zerikusia duten gaiei buruz.
- Babes-ezarekin zerikusia duten gaiei buruz.
- Gizarte-bazterketarekin zerikusia duten gaiei buruz.
- Iraupeneko baliabideekin zerikusia duten gaiei buruz.
- Gizarte parte-hartzearekin zerikusia duten gaiei buruz.

4.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala betetzearekin hasten da esku-hartzeko oinarrizko prozedura Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren, betiere, pertsona profesionalak, beren egitekoak betez, jarraipena eskatzen duen esku-hartze baten beharra antzematen badute. Oinarrizko gizarte-langileak egingo du lehenengo balioespen profesionala, pertsona erabiltzaileak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jotzeko izan duen arrazoian oinarriturik, eta jarduketa-esparru orokorrak aintzat hartuta, betiere. Bestalde, pertsona erabiltzailearen gizarte-gaitasunei eta -abileziei buruzko lehenengo balioespena erantsiko dio informazio horri.

5.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala indarrean egongo da lehen edo bigarren mailako arretako edo erantzukizun autonomikoko gizarte-zerbitzuen esku-hartzeak dirauen aldi osoan. Edozein eskumen-esparrutako pertsona profesionalen azken esku-hartzetik bi urte igarota, pertsona erabiltzaileak oraino gizarte-zerbitzuen arreta eskatzen badu, Fitxa Sozial berria egingo zaio.

6.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari atxikiko zaizkie Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak datuak biltzeko, erabiltzeko eta ustiatzeko.

7.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialeko datuak, tratatu ostean, estatistika-informazio gisa hartu ahal izango dira gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren, Euskal Autonomia Erkidegoan estatistika eta datuak babesteari buruz dagoen araudiaren arabera.

3. artikulua.– Gizarte-diagnostikoa.

1.– Gizarte-diagnostikoa da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta eskatzen duten pertsonen gizarte-beharrizanen deskripzio eta balioespen profesionala, esku-hartze egokia zein den zehazteko balio duena. Diagnostikoa egingo da, baldin eta gizarte-langileak, hastapeneko balioespena egin ondoren, jarraipena eskatzen duen esku-hartzea abian jartzea beharrezko iritziz gero.

2.– Gizarte-diagnostikoak pertsona erabiltzailearen ase gabeko gizarte-beharrizanak erakutsiko ditu, baita gabezia horren maila ere. Diagnostikoaren emaitzari esker zehaztuko da zein mailatakoa izan behar duen hautemandako beharrizanak betetzeko esku-hartzeak, eta zer zerbitzu eta prestazio eskainiko dituzten udalak, foru aldundiak edo autonomia erkidegoak, hautemandako beharrizanei egoki erantzuteko.

3.– Gizarte-diagnostikoa, tresna legez, II. eranskinean jasotzen da: adierazleen zerrenda bat da –alderdika ordenatuak eta bizi-espazioka multzokatuak–, zeinek ahalbidetzen baitu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren artatu daitekeen edozein kasuren ezaugarriak biltzea, eta pertsona erabiltzearen gizarte-egoera zein den ondorioztatzea.

4.– Eredu hau gizarte-diagnostiko mota hauei aplikatzen zaie:

a) Hasierako diagnostikoa: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egingo dute beharrizanen gizarte-balioespena eta arreta pertsonalizatuko plana zehaztuko duen hasierako diagnostikoa –jarraipen zehatza, bete beharreko helburuak eta dagozkion zerbitzuen eta prestazioen pertsona erabiltzailearekin adostutako proposamena–.

b) Diagnostiko sakona: Udaleko gizarte-zerbitzuen intentsitate handiagoko esku-hartzerako edo bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetara bideratzeko, sakontasun handiagoa eskatzen duten eta bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuek aintzat hartu beharko dituzten gizarte-diagnostikoak egingo dituzte udaleko gizarte-zerbitzuek.

5.– Diagnostiko sakona tresna honetan ezarritzako adierazle guztiak aplikatuz egingo da; hasierako diagnostikoa, aldiz, babes-sistemarekin, bizikidetzaren pertsonalarekin, familia-bizikidetzarekin, gizarte-bizikidetzarekin eta iraupeneko baliabideekin zerikusia duten hautatutako adierazle orokorretan oinarrituko da.

6.– Gizarte-diagnostikoaren emaitzatik ondorioztatzen bada mendetasunaren, desgaitasunaren, bazterketaren eta babes-ezaren balioespen eta diagnostiko espezializatu bat eskatzeko beharrez dagoela, foru gizarte-zerbitzuek edo bigarren mailako arretakoek egingo dute diagnostiko espezializatu hori, horretarako ezartzen diren tresna tekniko komunak erabiliz.

4. artikulua.– Tresna informatikoa.

1.– Eusko Jaurlaritzak, gizarte-gaietan eskumena duen sailaren bidez, udal eta foru euskal administrazio publikoen esku ezarriko du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala eta gizarte-diagnostikoa egiteko informatikako aplikagarri komuna, Gizarte.net atariaren bidez, alegia.

2.– Informatikako tresnak bermatuko du euskal administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna eta interkonexioa, eta dekretu hau indarrean jartzen denetik izango da erabilgarri.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 28an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

ERANSKINA, MAIATZAREN 28KO 353/2013 DEKRETUARENA
GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN FITXA SOZIALAREN EREDUA

FITXA SOZIALA**Datu pertsonalak (*)**

(*) Datu horiek nahitaezkoak dira.

- **Izena**
- **Abizenak**
- **NANa**

Helbidea

- **Telefonoa**
- **Ordezkarria / Pertsona arduraduna**
- **Senidetasuna**

Pertsonaren oinarrizko identifikazio sozio-biografikoa

- **Jaiotze-data**
- **Bizitokia (udalerrria)**
- **Sexua**
 - Gizona
 - Emakumea
- **Nazionalitatea**
 - Ez atzerritarra
 - ✓ Udalerrikoa bertakoa
 - ✓ EAEko beste udalerrri batekoa
 - ✓ Beste autonomia-erkidego batekoa
 - Nazionalitate bikoitza
 - Atzerritarra Hautatu herrialdea zerrendatik
 - ✓ Atzerritarra Europar Batasuneko erregimena aplikatzen zaio
 - Aberrigabea
- **Helbidea, egoitza fisikoa eta ohiko bizitokia**
 - Familiako etxebizitza edo bizitoki partikular batean bizi da.
 - Familiako infraetxe partikular batean bizi da
 - Erakundez kanpoko etxebizitza kolektibo batean bizi da.
 - Etxebizitza kolektibo instituzional batean bizi da.
 - Bizitokirik ez du.
- **Bizikidetzataledea**
 - Instituzionala edo establezimendu kolektiboa
 - Pertsona bakarreko etxea.
 - Bizikidetzako taldearekin

Erroldatzea

3.1 adierazlea.– 6. adierazlea - Erroldatzea.

- **Pertsona, bizi den udalerritan dago erroldatua:**
 - Espedientean agertzen den udalerrian erroldatua.
 - Lurralde historikoko beste udalerrri batean dago erroldatua.
 - EAEko beste udalerrri batean dago erroldatua.
 - Beste autonomia-erkidego bateko udalerrri batean dago erroldatua.
- **Zailtasunak erroldatzearekin / Gezurrezko erroldatzea.**
 - Izapideak egiten ari da, eta aukera handiak ditu lortzeko.
 - Establezimendu kolektibo batean dago erroldatua.
- **Ez dago erroldatua.**
 - Garai batean erroldatua zegoen. Egun ez du errolda-agiririk.
 - Errolda-eskaera ezetsi egingo zaio, ziur asko.
 - Errolda-eskaera ezetsi egin zaio.

Erroldatze-data

Arretarako arrazoia eta balioespen profesionala

Arretarako pertsona erabiltzaileak duen arrazoia	Jardun-eremu orokorrak	Balioespen profesionala (pertsona profesionalak bete beharrekoa: gizarte-langilea edo profesional espezializatua)
<input type="checkbox"/>	Gizarte-zerbitzuen sistemari buruzko informazioa	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Beste sistema batzuei buruzko informazioa	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Mendetasuna.	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Babes-eza	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Bazterketa	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Iraupeneko baliabideak	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Gizarte parte-hartzea	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Diagnostiko-hurbilketako esku-hartzea	<input type="checkbox"/>

Harremanak izateko eta komunikatzeko oinarrizko abileziak**9.A.1. adierazlea.– 15. adierazlea – Harremanak izateko eta komunikatzeko oinarrizko abileziak.**

- **Jarduna eta praktikan jartzea.**
- **Zailtasunak eta jardun eskasa**
- **Ez du jardunik adierazten**

II. ERANSKINA, MAIATZAREN 28KO 353/2013 DEKRETUARENA

GIZARTE-DIAGNOSTIKOA

Tresna honek 172 adierazle ditu, 17 alderditan ordenatuak, eta, halaber, 5 bizi-esparrutan antolatuak:

- o Ekonomia-, lan- eta egoitza-arloa.
- o Bizikidetzakoa
- o Langile-arloa
- o Osasuna
- o Gizarte-arloa

Bi eredu eskaintzen ditu: hasierako diagnostikoa eta diagnostiko sakona. Hasierakoa diagnostiko sakonaren adierazleen hautapen bat da

II.a.– Ondoko taulan, DIAGNOSTIKO SAKONA egiteko balio duten adierazle zerrenda bat dago:

	1. ALDERDIA.– EKONOMIA-EGOERA.
1.1.	Pertsonak dituen diru-sarrerak.
3. P.	Bizikidetzak-taldearen diru-sarrerak.
1.2.	Pertsonaren diru-sarreraren zenbatekoa nahikotasuna.
3. P.	Bizikidetzak-taldearen diru-sarreraren zenbatekoa nahikotasuna.
1.3.	Diru-sarreraren iturriak
1.4.	Diru-sarreraren iturriak – senitartekoen zein bestelako lehen mailako sarearen laguntza materiala
1.5.	Etxebizitzako edo bizitokiko gastuak (pertsona eta haren bizikidetzak-taldea).
1.5.a	Etxebizitzako edo bizitokiko gastuen zenbatekoa.
1.6.	Oinarrizko bestelako ondasunetako eta zerbitzuetako gastuak.
1.7.	Ez-oinarrizko ondasunetako eta zerbitzuetako gastuak
	2. ALDERDIA.– OKUPAZIO- ETA LAN-EGOERA.
2.1.	Okupazio- eta lan-egoera.
2.A.1	Lan-jarduera
2.A.2	Lan-baldintzak
2.A.3	Lan-egonkortasuna
2.A.4	Lanaldiaren iraupena
2.B.1	Lan-bilaketaren egoera.
2.B.2	Langabeak: profilak eta lan-merkatuaren eskaria.
	3. ALDERDIA.– EGOITZA-EGOERA.
3.1.	Erroldatzea.
3.1.a	Erroldatze-denbora:
3.2.	Egoitza-baimena, atzerritarra
3.3.	Lan-baimena, atzerritarra
3.4.	Atzerritarraren identifikazio-txartela edo bisa.

	EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA: Ekonomia-, lan- eta egoitza-arloa
T.1	Gizarte Segurantzaren laguntza ekonomikoak.
T.2	Diru-sarrerak bermatzeko errenta.
T.3	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko eskakizunak.
T.4	Doako justizia
	4. ALDERDIA.– BIZITOKI- ETA ETXEBIZITZA-EGOERA
4.1.	Bizitoki-egoera
4.2	Bizitoki-egonkortasuna
4.2.1	Familia-etxebizitza edo –bizitoki partikularrean zenbat pertsona.
4.2.2	Bizitoki instituzional kolektiboetan zenbat pertsona.
4.2.3	Zenbat pertsona bizitokirik gabe edo bizitoki baztertzailan.
4.3	Ohiko egoitzaren eta bizitokiaren komunitate-markoa.
4.3.1	Oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea
4.3.2	Bizitokia non dagoen
4.3.3	Irisingarritasuna, oztopoak
4.A.1	Eskura dagoen etxebizitzako bizilagunak
4.A.2	Eskura dagoen etxebizitzaren edukitze-erregimena
4.A.3	Eskura dagoen etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak
4.A.4	Arkitektura-oztopoak
4.A.5	Etxebizitzako ekipamendua
4.A.6	Hornikuntza
4.B.1	Familia-etxebizitza edo –bizitoki partikular bat eskura izatea.
4.B.2	Eskura dagoen etxebizitza edo bizitokiaren bizigarritasun-baldintzak
4.C.1	Kalean bizi da, eta kalean egiten du lo.
4.C.2	Kalean bizi direnen leku-aldaketak
4.C.3	Infraetxeetako bizitokien baldintzak
4.C.4	Bizitokia galtzea
	5. ALDERDIA.– LOTURA AFEKTIBOAK ETA GIZARTE-LAGUNTZA JASOTZEA.
5.1.	Harremanak eta lotura afektiboak izatea
5.2.	Gizarte-laguntza jasotzea
5.3.	Lehen mailako sareen gizarte-laguntza: senitartekoak eta ez-senitartekoak
5.4.	Bigarren mailako komunitate-sareen gizarte-laguntza
5.5.	Bigarren mailako erakunde-sareen gizarte-laguntza

	6. ALDERDIA.– BIZIKIDETZAKO HARREMAN-EGOERA, PERTSONALA, FAMILIAKOA
6.1.	Bizikidetzako harreman-egoera.
6.1.1	Familia-lotura edo lotura afektiboa duen bizikidetzataldea.
6.1.2	Erakunde edo establezimendu kolektiboko bizikidetzataldea.
6.1.3	Bizitokirik gabeko pertsonak
6.2.	Familia zabalarekiko harreman-egoera.
6.3.	Auzokideekiko harreman-egoera
6.4.	Bizikidetzaharremanak: norbanakoa eta senideak
	7. ALDERDIA.– EGUNEROKO BIZITZAREN ANTOLAKETA
7.A.1	Elikadura antolatzea
7.A.2	Norbanakoaren / familiaren higiena antolatzea
7.A.3	Etxebizitzaren higiena antolatzea
7.A.4	Ekonomiaren kudeaketa antolatzea
7.A.5	Etxeko-lanen banaketa antolatzea
7.A.6	Kide zaurgarrien arreta, hezkuntza antolatzea
7.A.7	Etxeko arduren banaketa antolatzea
7.B.1	Elikadura
7.B.2	Higiene pertsonala.
7.B.3	Etxebizitzako higiena
7.B.4	Osasun-zainketak
7.B.5	Ekonomiaren kudeaketa
	8. ALDERDIA.– BIZIKIDETZA-HARREMANAK: BESTE TESTUINGURU BATZUK.
8.1.	Eskola-bizikidetzak
8.2	Laneko bizikidetzak
8.3	Bizikidetzak: beste prestakuntza- eta lanbide-kalifikazio batzuk.
8.4	Bizikidetzaharremanak eguneko egonaldiko gizarte-zerbitzuetan.
	EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA: Bizikidetzatarloa
T.5	Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea.
T.6	Senitartekoen elikadura-eskubidea
T.7	Adinez nagusikoen desgaitasun-adierazpena
T.8	Epaileak hala erabakita, zaintza- eta jagoletza-eginkizuna duten pertsonak
T.9	Babesteko egitekoak gauzatzea.
T.10	Adingabeen babesa
T.11	Etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonen babesa.
T.12	Banantzea edo dibortzioa
T.13	Seme-alaben zaintza eta jagoletza.
T.14	Seme-alaben zaintza eta jagoletzari buruzko obligazioak betetzea.
T.15	Bi gurasoekin harremanak izateko obligazioa
T.16	Seme-alaba adingabeekin guraso-ahala betetzea.

	9. ALDERDIA.– GIZARTE-ABILEZIAK.
9.A.1.	Harremanetarako eta komunikaziotako oinarrizko abileziak
9.A.2	Asertibotasuna
9.A.3	Sentimenduak adieraztea
9.A.4	Gatazkak ebazteko prozedura. Erasoaren aurrean alternatibak baliatzea
9.A.5	Frustrazioaren aurreko tolerantzia.
9.B.1.	Oinarrizko eskumen kognitiboak.
9.B.2	Laguntza eskatzeko eta aholkuei jaramon egiteko gaitasuna
9.B.3	Gertakariak aurreratzeko eta aurreikuspenak egiteko gaitasuna
9.B.4	Eskura dituen laguntzak eta baliabideak ebaluatzeko trebetasuna
9.B.5	Bulkadak behar bezala erabiltzea eta kontrolatzea
9.C.1	Lagunak egiteko abilezia
9.C.2	Adiskidetasunari eusteko abilezia
9.C.3	Komunitateko baliabideak erabiltzeko abilezia.
9.C.4	Osasun-aginduak betetzeko abilezia.
9.C.5	Komunitateko bizitzan kontuan parte hartzeko eta antolatzeko abilezia
9.C.6	Astialdia antolatzeko abilezia.
9.D.1	Nork bere burua zaintzeko abilezia (higienea, arropa, medikazioa...).
9.D.2	Beste pertsona batzuekin batera bizitzeko abilezia
9.D.3	Erabakiak bere kabuz hartzeko abilezia
9.D.4	Bizitzako krisialdiei aurre egiteko abilezia
9.D.5	Bizilekua aurkitzeko abilezia.
9.D.6	Lana biltzeko abilezia.
9.D.7	Lanari eusteko abilezia.
9.D.8	Gizarte-babeserako sistemak erabiltzeko eta eskubideak baliatzeko gaitasuna.
	10. ALDERDIA.– HEZKUNTZA – PRESTAKUNTZA – INFORMAZIOA – TREBAKUNTZA
10.1	Bukatutako ikasketen maila
10.2	Aribideko prestakuntza
10.2.1	Nahitaezko eskolatzeko adina duten adingabeen eskolatzeko (6-16 urte).
10.2.1.a	Eskola-errendimendua
10.2.2	Aribideko prestakuntza: lanerako adina (16-65 urte).
10.3	EAEko hizkuntza ofizialak jakitea.
10.4	Internet erabiltzea
10.5	Informatikaren ezagutza eta erabilpena, erabiltzaile gisa.
10.6	Gizarte- eta kultura-errealitateari buruzko informazioa.

2013ko ekainaren 26a, asteazkena

10.7	Gizarte-eskubideei eta gizarte-babeserako sistemei buruzko informazioa
10.8	Gizartean parte hartzeko zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazioa.
10.A.1	Lan-merkatuan sartzeko prestakuntza akademikoa.
10.A.2	Laneko esperientzia.
10.A.3	Kualifikazioa.
10.A.4	Lanerako motibazioa
11. ALDERDIA.– BIZI-DINAMISMOAK.	
11.1	Autoestimua - autokonfiantza
11.2	Gogo-aldarte eta umorea
11.3	Aldatzeko motibazioa
11.4	Erantzukizunak bere gain hartzea
11.5	Erresilientziarekin lotutako jarrerak
11.6	Harremani buruzko pertzepzio subjektiboa
11.7	Norberaren egoera orokorraren kontzientzia
12. ALDERDIA.– BABESERAKO SISTEMEN ERABILERA.	
12.1	Lehen eta bigarren mailako sareei laguntza eskatzea.
12.2	Bigarren mailako sareen laguntza behar du
12.3	Behar izanez gero, gizarte-baliabideak erabiltzea.
EGOERA JURIDIKOA: EREMU PERTSONALA	
T.17	Nortasuna egiaztatzea.
T.17.a	Espainiako herritartasuna: NANA izatea
T.17.b	Atzerritarrak: pasaportea edo herritartasuna egiaztatzen duen legezko beste agiri bat.
T.18	Pertsonen sexuari buruzko erregistro-aipamena zuzentzea (Erregistro Zibila).
T.19	Zigor-erantzukizuna
13. ALDERDIA.– OSASUN-EGOERA.	
13.1.	Egun duen osasun-egoera
13.2.	Osasun-arretaren beharra
13.3.	Tratamendu baten beharra
13.3.a	Agindutako tratamendua betetzea
13.A.1	Osasun fisikoaren egoera
13.A.2	Azken urtean izandako tratamenduak eta ospitaleratzeak
13.B.1	Tratamendu psikiatrikoa eskatzen duen buruko patologia edo nahasmendua
13.B.1.a	Zeinu larriak – oinarriko egokitze-nahasmenduak
13.B.2	Azken urtean izandako ospitaleratze eta tratamendu psikiatrikoak
13.B.3	Bizitzan zehar izandako ospitaleratze eta tratamendu psikiatrikoak.
13.C.1	Droga-mendetasunak / Mendetasunak
13.C.2	Izandako droga-mendetasunak / Mendetasunak
13.C.3	Mendetasuna gainditzeko egin dituen tratamenduak

14. ALDERDIA.– DESGAITASUN-EGOERA ETA LANERAKO EZINTASUNA	
14.1.	Desgaitasun-egoera.
14.2.	Lanerako ezintasun-egoera
14.3.	Autonomia – besteen laguntzaren premia duen ala ez.
14.4.	Mendetasun-maila
EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA: Osasun-arloa	
T.17	Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza
T.18	Desgaitasuna duen pertsonaren eskubideen egoera.
T.19	Mendetasunaren eskubideen egoera
15. ALDERDIA.– GIZARTE-ONARPENA ETA KOMUNITATEKO EGUNEROKO BIZIKIDETZA.	
15.1	Komunitateko eguneroko bizikidetza
15.2	Gizarte-onarpena eta estigmatizazioa komunitatean.
16. ALDERDIA.– GIZARTE-INGURUNERA ETA ARAUETARA EGOKITZEA.	
16.1.	Jokabideak gizarte-ingurunera eta arauetara egokitzearen egungo egoera.
16.2	Gizarte-ingurunearekiko eta arauetikiko harremanen historia.
17. ALDERDIA.– GIZARTE-HARREMANAK IZATEA ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA.	
17.1	Gizarte-harremanak eta gizarte-bizitza garatzearekin lotutako jarduerak, azken urtean.
17.2	Gizarte-harremanak eta gizarte-bizitza garatzearekin lotutako jarduerak, azken 3 urteetan.
17.3	Harremanak eta gizarte-bizitza garatzeko sare formaletan egindako jarduerak, azken urtean.
17.4	Beste pertsona batzuei gizarte-laguntza ematea.
17.5	Gizarte-sare informaletan parte hartzea eta gizarte-harremanak izatea.
17.6	Komunitatean errotzea
17.7	Harremanak eta gizarte-bizitza izateko premiaren gogobetetasuna.

Zerrenda honetatik, adierazle hauek osatzen dute HASIERAKO DIAGNOSTIKOA:

1.1.	Pertsonaren diru-sarrerak.
1.1.a	Bizikidetza-taldearen diru-sarrerak.
1.2	Pertsonaren diru-sarreraren nahikotasuna.
1.2.a	Bizikidetza-taldearen diru-sarreraren nahikotasuna.
1.3.	Diru-sarreraren iturriak
1.4.	Diru-sarreraren iturriak – senitartekoen zein bestelako lehen mailako sarearen laguntza materiala
1.5.	Etxebizitzako edo bizitokiko gastuak (pertsona eta haren bizikidetza-taldea).
1.5.a	Etxebizitzako edo bizitokiko gastuen zenbatekoa.
1.6.	Oinarrizko bestelako ondasunetako eta zerbitzuetako gastuak.
2.A.1	Lan-jarduera
3.1.	Erroldatzea.
T.2	Diru-sarrerak bermatzeko errenta.
4.1.	Bizitoki-egoera
5.1.	Harremanak eta lotura afektiboak izatea

5.2.	Gizarte-laguntza jasotzea
5.3.	Lehen mailako sareen gizarte-laguntza: senitartekoak eta ez-senitartekoak
5.4.	Bigarren mailako komunitate-sareen gizarte-laguntza
5.5.	Bigarren mailako erakunde-sareen gizarte-laguntza
6.1.	Bizikidetzako harreman-egoera.
6.1.1	Familia-lotura edo lotura afektiboa duen bizikidetzta-taldea.
6.1.2	Erakunde edo establezimendu kolektiboko bizikidetzta-taldea.
6.1.3	Bizitokirik gabeko pertsonak
6.2.	Familia zabalarekiko harreman-egoera.
6.3.	Auzokideekiko harreman-egoera
6.4.	Bizikidetzta-harremanak: norbanakoa eta senideak
8.1.	Eskola-bizikidetzta
8.2	Laneko bizikidetzta
8.3	Bizikidetzta: beste prestakuntza- eta lanbide-kalifikazio batzuk.
8.4	Bizikidetzta-harremanak eguneko egonaldiko gizarte-zerbitzuetan.
9.A.1.	Harremanetarako eta komunikaziotako oinarrizko abileziak
9.B.1.	Oinarrizko eskumen kognitiboak.
9.C.3	Komunitateko baliabideak erabiltzeko abilezia.
10.1	Bukatutako ikasketen maila
10.3	EAEko hizkuntza ofizialak jakitea.
10.7	Gizarte-eskubideei eta gizarte-babeserako sistemei buruzko informazioa
12.2	Bigarren mailako sareen laguntza behar du
13.1.	Egun duen osasun-egoera
14.3.	Autonomia – besteen laguntzaren premia duen ala ez.
15.1	Komunitateko eguneroko bizikidetzta
15.2	Gizarte-onarpena eta estigmatizazioa komunitatean.
16.1.	Jokabideak gizarte-ingurunera eta arauetara egokitzearen egungo egoera.

II.b.– DIAGNOSTIKO SAKONA. Zerrenda osoa.**Ekonomia-, lan- eta egoitza-arloa****1. ALDERDIA.– EKONOMIA-EGOERA.****DIRU-SARRERAK****1.1. adierazlea.– Pertsonaren diru-sarrerak.**

- Diru-sarrera erregularrak.
- Diru-sarrera irregularrak edo noizbehinkakoak.
- Diru-sarrerarik ez.

1.1.a adierazlea.– Bizikidetzataldearen diru-sarrerak.

- Diru-sarrera erregularrak.
- Diru-sarrera irregularrak edo noizbehinkakoak.
- Diru-sarrerarik ez.

1.2. adierazlea.– Pertsonaren diru-sarreraren nahikotasuna.

- Nahikoa.
- Eskasa.
- Oso eskasa.

1.2.a. adierazlea.– Bizikidetzataldearen diru-sarreraren nahikotasuna.

- Nahikoa.
- Eskasa.
- Oso eskasa.

1.3. adierazlea.– Diru-sarreraren iturriak.

- Norberaren baliabideetatik eratorritako diru-sarrerak: lana, pentsioak, bestelakoak.
 - Lan egonkorra.
 - Lan ez-egonkorra, aldi baterakoa edo noizbehinkakoa.
 - Langabezia-prestazioa.
 - Pentsioduna: kotizaziopeko pentsioa.
 - Pentsioduna: Zahartzaro eta Ezintasunerako Nahitaezko Asegurua (ZENA).
 - Pentsioduna: mutua pribatu baten pentsioa.
 - Gizarte Segurantzaren beste prestazio batzuk.
 - Ondarea, ondare-etekinak.
 - Bestelakoak: banantze-pentsioa, mantenu-pentsioa.
 - Ezohiko diru-sarrerak: jaraunspenak, kapitalizazioak, atzerakinak, sariak.
- Gizarte-babeserako sistema publikoen baitako diru-sarrerak.
 - Erakundeen laguntzak.
 - Langabezia-sorospena.
 - Kotizazio gabeko asistentzia-pentsioak.
 - Bestelakoak: beka orokorrak.
- Lanbide baztertuetako diru-sarrerak.
 - Ezkutuko ekonomia.
 - Jarduera marjinalak eta legez kanpokoak.

1.4. adierazlea.– Diru-sarreraren iturriak: senideen zein bestelako lehen mailako sarearen laguntza materiala.

- Lehen mailako sarearen laguntzarekin osatzen ditu diru-sarrerak.
- Lehen mailako sarearen baitan daude haren diru-sarrerak.
- Ez du lehen mailako sarearen laguntzarik.

GASTUAK**1.5. adierazlea.– Etxebizitzako edo bizitokiko gastuak (pertsona eta haren bizikidetzat-taldea).**

- Bere etxebizitza partikularreko bizitoki-gastuak ordain ditzake.
- Zailtasunak ditu bere etxebizitza partikularreko bizitoki-gastuak ordaintzeko:
 - Ordainketa-atzerapenak.
 - Kaleratzeko, bahitzeko eta hornidurak mozteko prozesuak abian daude.
- Ezin ditu ordaindu etxebizitza- eta bizitoki-gastuak. Balizko egoerak:
 - Etxebizitza galdu du, enbargoagatik edo desahuzioagatik.
 - Erakunde kanpoko bizitoki eta etxebizitza kolektiboetara jo du.
 - Ezin ditu ordaindu erakunde kanpoko etxebizitza kolektiboko bizitoki-gastuak.

1.5.5. adierazlea.– Etxebizitzako edo bizitokiko gastuen zenbatekoa.

- Egokia.
- Handia.
- Oso handia.

1.6. adierazlea.– Oinarrizko bestelako ondasunetako eta zerbitzuetako gastuak.

- Oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak ordain ditzake.
- Ordaintzeko zailtasunak:
 - Oinarrizko ondasunetako eta zerbitzuetako gastuak murriztu ditu.
 - Ordainketa-atzerapenak eta zorrak.
 - Ezohiko eta ustekabeko gastuak ordaintzeko zailtasunak.
- Ezin ditu gastuak ordaindu:
 - Ezin ditu oinarrizko premiak ase.
 - Zorduntzea. Ondasunak galtzea.
 - Ezin ditu ezohiko eta ustekabeko gastuak ordaindu.

1.7. adierazlea.– Oinarrizkoak ez diren ondasunetako eta zerbitzuetako gastuak.

- Ez du zailtasunik oinarrizkoak ez diren ondasunak eta zerbitzuak ordaintzeko.
 - Ordain ditzake.
 - Mugatu egiten ditu, oinarrizko gastuak ordaintzeko.
 - Ez ditu baliatzen, ezin baititu ordaindu.
- Zailtasunak ditu oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.
 - Oinarrizko gastu batzuk murriztu ditu, oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.
 - Zorpetu egiten da, oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.
- Oinarrizkoak ez diren gastuek eragindako arazoak:
 - Oinarrizko gastuak murriztu ditu, oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.
 - Etxebizitza edo laguntzak jasotzeko eskubidea galdu du, oinarrizkoak ez diren gastuen ondorioz.

2. ALDERDIA.– OKUPAZIO- ETA LAN-EGOERA.**2.1. adierazlea.– Okupazio- eta lan-egoera.**

- Ez du arazorik arlo horretan, edo ez da zertan aztertu. Balizko egoerak:
 - Lanean ari da.
 - 16 urtetik beherakoa da, eta hezkuntza-sisteman dago.
 - 16 urtetik gorako ikaslea da.
 - Pentsioduna da, edo lan-adina gainditu du.
 - Kapital-sarrerak jasotzen ditu.
 - Etxea, seme-alabak edo beste pertsona batzuk zaintzen ditu.
- Egoera eskasa:
 - Langabea: lanean aritua.
 - Langabea: ez du inoiz lan egin.
 - Ezkutuko lan-jardueretan aritzen da.
- Egoera larria:
 - Guztiz legezkoak ez diren edo legez kanpokoak diren lan-jardueretan aritzen da.
 - Lanean aritzeko adina du (16-65 urte), baina ez du lan egiteko aukerarik.
 - 16 urtetik beherakoa da, eta lanean ari da.

2.A. ALDERDIA.– LAN-EGOERA.**2.A.1. adierazlea.– Lan-jarduera.**

- Lanean ari da.
 - Besteren kontura.
 - Besteren kontura, lan babestu batean.
 - Bere kontura.
- Ezkutuko lan-jarduera.
 - Besteren kontura, kontraturik gabe.
 - Bere kontura, legez tatu gabe.
- Ezkutuko lan-jarduera, guztiz legezkoa ez dena edo legez kanpokoak.
 - Guztiz legezkoa ez den ezkutuko okupazioa.
 - Legez kanpoko ezkutuko okupazioa.

2.A.2. adierazlea.– Lan-baldintzak.

- Egokiak.
- Txarrak: ezegonkortasuna.
- Oso txarrak: lan-esplotazioa.

2.A.3. adierazlea.– Lan-egonkortasuna.

- Lan egonkorra.
- Lan ezegonkorra.
- Noizbehinkako lana.

2.A.4. adierazlea.– Lanaldi-mota.

- Lanaldi osoa edo partziala (borondatezkoa).
- Lanaldi murriztua, lana eta familia-bizitza uztartzeko edo osasun-arrazoiengatik.
- Lanaldi partziala.

2.B. ALDERDIA.– LANGABEZIA-EGOERA**2.B.1. adierazlea.– Lan-bilaketaren egoera.**

- Langabea: modu aktiboan ari da lan bila.
 - Lehenengo aldiz lan bila.
 - Urtebete baino gutxiagoz langabe.
 - Urtebete baino gehiagoz langabe.
- Langabea: modu pasiboan ari da lan bila.
 - Ezintasuna dela eta.
 - Albo batera utzi ezin dituen familia-erantzukizunak direla eta.
 - Beste batzuk
- Lana bilatzeari uko egiten dion langabea.
 - Ezintasuna dela eta.
 - Borondatezko langabezia.
 - Beste batzuk

2.B.2. adierazlea.– Langabeak: profilak eta lan-merkatuaren eskaria.

- Lan-merkatuan, profil hori duten pertsonak eskatzen dira.
- Lan-merkatuan, gutxitan eskatzen dira profil hori duten pertsonak.
 - 45 urtetik gorakoak.
 - Inguruabar bereziak: arraza, kultura, ezaugarriak, transexualitatea.
- Lan-merkatuan eskatzen ez diren profilak dituzten pertsonak.
 - Askatasun-gabetzea, delitugintza, droga-mendetasuna eta halakoak bizi izan ditu.
 - Desgaitasuna (mugikortasun murriztua, komunikatzeko arazoak, etab.).
 - Ez du behar adina prestakuntza.
 - Ez du lan-baimenik.

3. ALDERDIA.– EGOITZA-EGOERA.**3.1. adierazlea.– Errolda.**

- Pertsona, bizi den udalerritan dago erroldatuta:
 - Lurralde historikoko beste udalerrri batean dago erroldatua.
 - EAEko beste udalerrri batean dago erroldatua.
 - Beste autonomia-erkidego bateko udalerrri batean dago erroldatua.
- Zailtasunak erroldatzearekin / Gezurrezko erroldatzea.
 - Izapideak egiten ari da, eta aukera handiak ditu lortzeko.
 - Establezimendu kolektibo batean dago erroldatua.
- Ez dago erroldatua.
 - Garai batean erroldatua zegoen. Egun ez du errolda-agiririk.
 - Errolda-eskaera ezetsi egingo zaio, ziur asko.
 - Errolda-eskaera ezetsi egin zaio.

3.1. adierazlea.– Erroldatze-epea.

- 10 urte.
- 5 urte.
- 3 urte.
- 2 urte.
- urte 1.
- 6 hilabete.
- 6 hilabete baino gutxiago.

3.2. adierazlea.– Atzerritarrak: egoitza-baimena.

- Egoitza-baimena du. Mota: (ikus adierazleen zerrenda, behean)
- Eskaera bideratzen ari dira, eta aukera handiak ditu lortzeko. Mota: (ikus zerrenda)
- Ez du egoitza-baimenik.
 - Oraindik ez du eskatu: baldintzak betetzeko zain dago edo jatorrizko herrialdeko agiriak noiz bilduko zain dago.
 - Egoitza-baimenaren eskaera ezetsi egin dute. Mota: (ikus zerrenda)

EGOITZA-BAIMEN MOTAK

- Aldi baterako hasierako baimena
Hainbat motatakoak: familia berriro biltzeko baimena, hainbat lan mota...
- Inguruabar bereziak:
 - lan-sustraitzea
 - gizarte-sustraitzea
 - familia-sustraitzea
 - nazioartearen babesak
 - arrazoi humanitarioak
 - lankidetzaren autoritateekin
 - nazio-segurtasuna
 - herri-interesa
 - genero-indarkeria
 - sare antolatuen aurkako lankidetzaren
 - giza salerosketaren biktimak diren atzerritarrak
 - egoitza-baimenik ez duen atzerritar adingabea, bakarrik etorri dena
- Egoitza-baimena izateko edo emateko beste inguruabar batzuk:
 - Lehenengo berritzea
 - Bigarren berritzea
 - Iraupen luzekoa
 - Iraupen luzekoa (EB)
 - Aldi baterako baimena, EBko herritar baten senide gisa
 - Behin betiko baimena, EBko herritar baten senide gisa
- Mendetasunaren arabera: egoitza-baimenaren titularra den, edo beste norbaiten beharra duen edo izan duen baimena lortzeko:
 - Beregaina
 - Familia-berrengatzearen ondoriozkoa
 - Espainiako herritar baten semea edo alaba, Espainiatik kanpo jaioa
 - Espainiako herritar baten semea edo alaba, Espainian jaioa
 - Adingabe atzerritarra, bakarrik etorritakoa
- Egonaldi-baimen mota:
 - Iraupen laburreko egonaldi-baimena
 - Egonaldi-baimena: ikasketak, ikasleen mugikortasuna, lanekoak ez diren praktikak edo boluntario-zerbitzuak direla eta.

3.3. adierazlea.– Atzerritarrak eta lan-baimena.

- Lan-baimena badu. Mota: (ikus adierazleen zerrenda, behean)
- Lan-baimenaren eskaera bideratzen ari dira, eta aukera handiak ditu lortzeko. Mota: (ikus zerrenda)
- Ez du lan-baimenik.
 - Oraindik ez du eskatu: zain dago eskakizunak noiz beteko dituen edo agiriak noiz bilduko dituen.
 - Lan-baimenaren eskaera ezetsi egin dute. Mota: (ikus zerrenda)

LAN-BAIMEN MOTAK:

- besteren kontura, hasierakoa
- bere kontura
- ikerketa egiteko, hasierakoa
- prestakuntza handiko profesionalak, EBko txartel urdina dutenak
- besteren kontura, iraupen jakinekoa
- nazioz gaindiko zerbitzuak ematekoa
- lan-baimena salbuetsirik
- ez du lan-baimenik

3.4. adierazlea.– Atzerritarraren identifikazio-txartela edo bisa.

- Txartela indarrean du.
- Txartela iraungita du.
- Ez du txartelik.
 - Galdua, lapurtua edo erabili gabea.
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.

EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA: ekonomia-, lan- eta egoitza-arloa.**T.1. adierazlea.– Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak.**

- Onuraduna da, edo ez ditu prestazio horiek behar.
- Ez da onuraduna, baina izan daiteke:
 - Izapideak egiten ari dira, eta aukera handiak ditu onuradun izateko.
 - Eskakizunak betetzen ditu, eta, eskatuz gero, onuradun izan daiteke.
 - Prestazioa eten egin da.
- Ez da onuraduna:
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.
 - Izapideak egiten ari dira, baina, ziur asko, eskaera ezetsi egingo dute.

T.2. adierazlea.– Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.

- Onuraduna da, edo ez du halakorik behar.
- Ez da onuraduna, baina izan daiteke.
 - Izapideak egiten ari dira, eta aukera handiak ditu onuradun izateko. Nahitaezko agiriak biltzen ari da.
 - Eskakizunak betetzen ditu, eta, eskatuz gero, onuradun izan daiteke.
 - Prestazioa eten egin da.
- Ez da onuraduna:
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.
 - Izapideak egiten ari dira, baina, ziur asko, eskaera ezetsi egingo dute.

T.3. adierazlea.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko eskakizunak.

- Onuraduna da; eskakizunak betetzen ditu.
- Eskakizun batzuk betetzen ditu, edo aurki beteko ditu eskakizun guztiak:
 - Ezin ditu prestazio eta zerbitzu guztiak jaso.
 - Zain dago erroldatze-aldia noiz beteko.
- Ez ditu eskakizunak betetzen. Larrialdi-egoeretan soilik jaso ditzake zerbitzu eta prestazio horiek.

T.4. adierazlea.– Doako justizia.

- Eskubide hori du.
- Ez da onuraduna, baina izan daiteke:
 - Izapideak egiten ari dira, eta aukera handiak ditu onuradun izateko.
 - Eskakizunak betetzen ditu, eta, eskatuz gero, onuradun izan daiteke.
- Ez da onuraduna:
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.
 - Izapideak egiten ari dira, baina, ziur asko, eskaera ezetsi egingo dute.
- Ez dagokio.

Bizikidetzaren arloa

4. ALDERDIA.- BIZITOKI- ETA ETXEBIZITZA-EGOERA.**4.1. adierazlea.- Bizitoki-egoera.**

- Familia-etxebizitza edo -bizitoki partikular batean bizi da.
 - Etxebizitza edo bizitokia norberarena da.
 - Etxebizitza edo bizitokia jatorrizko familiarena da.
 - Etxebizitza edo bizitokia lehen mailako sarearena da: senitartekoena zein besterena.
- Etxebizitza kolektibo batean bizi da.
 - Erakundez kanpoko bizitoki kolektibo batean bizi da.
 - Pentsioak, hostalak.
 - Ostatu edo apopilo-etxe batean.
 - Familia-etxebizitza edo -bizitoki partikular batean bizi da beste hainbatekin.
 - Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ordaindutakoa.
 - Bizitoki instituzional kolektibo batean bizi da.
 - Gizarte Zerbitzuak.
 - Osasun-arlokoa / Gizarte- eta osasun-arlokoa.
 - Bizitoki instituzional kolektibo batean bizi da, baina mugak ditu.
 - Osasun-arloko mugak.
 - Zigor-arloko mugak.
 - Atzeritartasun-arloko mugak.
- Ez du bizitokirik, edo bizitoki baztertzaillean bizi da.
 - Kanean bizi da.
 - Etxegabea. Eremu publikoetan bizi da.
 - Aterpetxeetan egiten du lo. Egunez, eremu publikoetan bizi da.
 - Kaleko ibilbideak.
 - Infraetxeetan.
 - Sartzeko eta irteteko erraztasunik ez duen etxebizitza batean.
 - Etxeko indarkeriaren biktima da, eta erasotzailearekin bizi da, familia-etxebizitzan.
 - Bat-batean galdu du bizitokia.
 - Iragarritako galera, 8 hilabete baino lehenago galtzeko aurreikuspena.

4.2. adierazlea.- Bizitokiaren egonkortasuna.**4.2.1.- Familia-etxebizitza edo -bizitoki partikular batean bizi da.**

- Aldaketarik ez.
- Egonkortasun eskasa: 2-5 urte.
 - Egun, egonkortasuna badu.
 - Aldatu egin beharko du aurki.
- Ez du egonkortasunik.
 - Bi urtetik behin edo gehiagotan aldatu du etxebizitza.
 - Maiz aldatu du etxebizitza: 3 edo 4 hilabete behin.
 - Helbide finkorik gabeko etxebizitzak.

4.2.2.– Bizitoki instituzional kolektiboetan dauden pertsonak.

- Egonkortasuna, ez da aldaketarik aurreikusten.
- Egonkortasuna, aldaketak aurreikusten dira:
 - Bizitoki instituzional kolektibo batean bizi da.
 - Epe laburreko eta ertaineko harrerarako gizarte-zerbitzuetan egindako egonaldia amaitu egin da.
 - Arrazoia:
 - Adina:
 - Medikuaren alta.
 - Zehapen-espeditatea, hutsegite larriengatik.
 - Bizitoki instituzional kolektiboa, askatasun mugatua duena.
 - Zigorraldia amaitu du.
 - Baldintzapeko askatasuna.
 - Hirugarren gradua.
 - Agindu judizial baten bidez ezarritako barnealdia amaitu du.
- Egonkortasun gutxi, edo batere ez.
 - Ospitalean etengabe ematen diote alta eta baja.
 - Epe laburreko harrerarako zerbitzuetan eginiko egonaldia amaitu du.
 - Beste batzuk

4.2.3.– Bizitokirik gabeko pertsonak edo bizitoki baztertzailan.

- Urtebete baino gutxiago egoera horretan.
- 1-2 urte.
- 2 urte baino gehiago.

4.3. adierazlea.– Ohiko egoitzaren eta bizitokiaren komunitate-markoa.

- Egokia da gizarteratzeko.
- Arrisku-faktoreak ditu.
- Bazterkeria-faktoreak ditu.
- Ez da zertan ebaluatu.

4.3.1. adierazlea.– Oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea.

- Oinarrizko zerbitzu egokiak ditu.
- Oinarrizko zerbitzu ezegoki samarrak ditu.
- Zerbitzu ezegokiak ditu.

4.3.2. adierazlea.– Bizitokiaren kokapena.

- Normaldua.
- Zonaldea hondatu samar.
- Zonalde degradatua.

4.3.3. adierazlea.– Irisgarritasuna, oztopoak.

- Irisgarritasun-arazorik ez / Ez dagokio.
- Zenbait oztopo ditu.
- Irisgarritasun-arazo larriak.
- Ez dagokio.

4.A. ALDERDIA.– FAMILIA-ETXEBIZITZA PARTIKULARRA ETA ERAKUNDEZ KANPOKO BIZITOKI KOLEKTIBOA.**4.A.1. adierazlea.– Etxebizitzako bizilagunak.**

- Etxebizitzan, bizikidetzaren unitate bakar bat bizi da.
- Etxebizitzan, hainbat familia- edo bizikidetzaren unitate bizi dira. Etxebizitza partikularra da.
 - Jatorrizko familiaren etxebizitzara itzuli dira edo bertan bizi dira:
 - Emantzipatzeko zailtasunak.
 - Independizatzeko zailtasunak.
 - Etxebizitza berean bizi dira, eta alokairua partekatzen dute.
 - Etxebizitza berean bizi dira, azpialokairuan.
- Bizitoki kolektibo bateko etxebizitza batean, hainbat familia- edo bizikidetzaren unitate bizi dira.
 - Ostatu batean edo apopilo-etxe batean.
 - Pentsio batean.

4.A.2. adierazlea.– Etxebizitza jabetza-erregimena.

- Etxebizitzaren jabea da:
 - Etxebizitza ordainduta
 - Oraindik ordaintzen
- Etxebizitza alokatzen du:
 - Alokairua
 - Azpialokairua
 - Alokairu partekatua
- Egoera ezegonkorra.
 - Jabeak doan utzi dio etxebizitza.
 - Etxebizitza alokatzen du, legeztatu gabe.
 - Etxebizitza okupatzen du, legez kanpo.
 - Etxeko langilea da, eta nagusiaren bizikidetzaren unitatearekin bizi da.

4.A.3. adierazlea.– Etxebizitzako bizigarritasun-baldintzak.

- Baldintza egokiak.
- Hondatu samar.
- Hondatuta.
 - Ez da bizitzeko egokia.
 - Zikinkeriaz beteta dago (Diogenes).
 - Osasun-baldintza txarrak.
 - Jende gehiegi pilatuta.

4.A.4. adierazlea.– Arkitektura-oztopoak.

- Oztoporik ez / Ez dagokio.
- Oztopoak badaude, baina ez dira handiak.
- Oztopo handiak daude.

4.A.5. adierazlea.– Etxebizitzaren ekipamendua.

- Beharrezko guztia du.
- Zenbait gauza falta dira, edo hondatuta daude.
- Oinarrizko gauzak falta ditu.

4.A.6. adierazlea.– Hornidura.

- Badu oinarrizko hornidura.
- Hornigairen bat falta da.
- Oinarrizko hornidura falta du.

4.B. ALDERDIA.– BIZITOKI INSTITUZIONAL KOLEKTIBOA.**4.B.1. adierazlea.– Familia-etxebizitza edo -bizitoki partikular bat izatea.**

- Badu / Ez dagokio.
- Izan dezake, behar izanez gero.
- Ez du.

4.B.2. adierazlea.– Eskura dagoen etxebizitzaren edo bizitokiaren bizigarritasun-baldintzak.

- Baldintza egokiak.
- Hondatu samar.
- Hondatuta.

4.C. ALDERDIA.– EZ DU BIZITOKIRIK EDO BIZITOKOKI BAZTERTZAILEETAN BIZI DA.**4.C.1. adierazlea.– Kalean bizi da, eta kalean egiten du lo.**

- Hilean 15 gau baino gutxiago.
- Ohikoak: Hilean 15-20 gau.
- Ia gauero.

4.C.2. adierazlea.– Kalean bizi direnen leku-aldaketak.

- Leku-aldaketarik ez.
- Aldizkako leku-aldaketak, garaiaren arabera.
- Etengabeko leku-aldaketak.

4.C.3. adierazlea.– Infraetxeetan bizi direnen egoera.

- Segurtasun fisikorik eza.
- Bizitoki mugikorra, ibiltaria.

4.C.4. adierazlea.– Bizitokia galtzea.

